


Bigarren olatutik ikasten



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Bermeo (Bizkaia), 1918ko azaroa. Gripe espainiarra deitutakoak 23 hildako eragin zituen herrian, hilabete bakarrean. Pandemiaren bigarren olatu zen 1918ko udazkeneko hau. Lehenengo olatuak, aurreko maiatzekoak, ez zuen hildakorik utzi Bermeon. Plentzian ere ez, eta, gero, azaroan 13 pertsona hilko zituen gripeak. Erandion, maiatzean 3 izan ziren hildakoak eta urrian, aldiz, ia 60. Gasteizen maiatzean 10era ez ziren iritsi eta urrian 200 hildakoren langa gainditu zuten. Irunen abuztua arte ez zen hildako bat bera ere zenbatu eta soilik irailean 90etik gora hil zituen gripeak... Anton Erkorekak *La pandemia de gripe española en el País Vasco* lanean bildutako datu horiek garbi uzten dute Euskal Herrian gripearen bigarren olatua lehenengoa baino askoz bortitzagoa izan zela. Zazpi lurraldeak kontuan hartuta, maiatzean gripeak hildakoak ez ziren 20ra iritsi eta, urrian, aldiz, 600 inguru izan ziren; hau da, udazkeneko egun bakarrean udaberriko hilabete osoan adina hiltzen zirela gripeak jota.

Eta Euskal Herrian gertatutakoa mundu osora zabaldu daiteke. Espainian, esaterako, hildakoen %75 bigarren olatuak eragin zituen, datu are esanguratsuagoa, lehenengo olatuak Madrilan eta Andaluziako hainbat tokitan gogor jo zuela kontuan hartuta. Batetik, bigarren olatuaren indarra tenperaturak eragin zuen: Covid-19a bezala, gripea ere errazago hedatzen da hotzetan. Bestetik, popu-




1918KO GRIPEAREN BIGARREN OLATUA LEHENA BAINO ASKOZ BORTITZ ETA HILGARRIAGOA IZAN ZEN.

lazioa ahuldua zegoen lehen olatuaren ondorioz eta Europan, bereziki, Lehen Mundu Gerraren eraginez. Lehen kolpean neurri batzuk hartuak zituzten (musukoak erabiltzea, isolamendua...), baina bigarrean zorrotz eta zehaztu behar izan zituzten. Hirugarren olatu bat ere etorriko zen (eta zenbait adituren uestez, laugarren bat ere bai, beste askok berragertze puntualtzat jo arren), askoz leunagoa, besteak beste bigarrean hartutako neurriek esker.

Ondorengo pandemietan ere antzeko olatu eredu antzematen da: 1957-1958ko asiarrak gripean, 1977-1978ko errusiar gripean... Eta aurtengoan ere aurreikusita zegoen bigarren olatu hau. Orduan, 1918an zergatik ez zuten aurreikusit? Pandemia aurrekariak egon bazeu-

den, jakina, baina ez behar bezala aztertuta, biomedikuntza XIX. mendean sortu baitzen eta orduan hasi baitziren epidemien eta pandemien datuak berariaz biltzen eta interpretatzen.

Badakigu, esaterako, XIV. mendean, Izurri Beltzaren garaian gaixotasuna hainbatetan berragertu zela, beste birus batzuekin gertatu ez bezala, izurri bubonikoa errazago zabaltzen dela udan, tenperaturak beroak direnean, baina ez dago nahikoa daturik olatuen patroia bat zehazteko. Valentziako Unibertsitateko Carmel Ferragud Zientziaren Historiako irakaslearen hitzetan, "iraganeko epidemiak egungo biomedikuntzaren eta tresnen bidez azaltzeak ez du balio, gaixotasunak kontzeptualizatzeko modua oso bestelakoa delako". ●



Supernobak zuhaitzen eraztunetan

Supernobak unibertsoko gertakizunik bortitzenetakoak dira; hilabete gutxitan gure Eguzkiak bizi osoan baino energia gehiago aska dezakete. Baina milaka argi-urtetako distantzian gertatzen direnez, ez digute eragiten. Edo hori uste genuen Robert Brakenridge Colorado Boulder unibertsitateko geozientzialariak enborretako

eraztunei erreparatu dien arte. Eraztunak erregistro historiko natural bikainak dira eta Brakenridge konturatu zen eraztuneko radiokarbono kontzentrazioa igo egiten dela supernoba bat gertatzen denean. Oraindik ondorio zehatzik atera ez daitekeen arren, fenomeno horren eraginari buruzko ikerketek bi-
dea zabaldu die. ●